

Erref. kodea: LAF-210-116

Izenburua: Euskal Herriko historiaren

dibulgaziorako artikulua

Eskualdunak Menderen Mende

Eskualdunak Menderen Mende

LEHENBIZIKO ARGIAK

Etchetik herrirat

Jesu-Kristo agertu baino aitzinagoko hogoi-garren mendetik harat lur-lanari ohartu dago Eskual-herriko gizona. Lan horrek ez du langile ibilkaririk nahi : laborariak on du hain geldi bizitzea, bere alhorpentzeri hurbil ; eta ber-bera balin badago deusetarat ez da helduko.

Horra zertako haste-hastetik etchetan kokatu den gizona bere ahaidekin, bakharka egon orde.

Bainan bethi gerthatu dira bertzen onetik aberastu nahiak : hots, alferkeriak ohointzari eman dio bide. Ez da beraz harritzeko andanaka lotzen baitzaizkon laphurrak laborarien ontasunari. Hauiek nola egingen zioten gogor beren etchekeko soilekin ? Laster elgar-aditu zuten izandunek eta elgarren auzo jarri ziren.

Auzo moltcho jori bat bazelarik, « herri » emaiten zioten izena eta herriko buruzagi bat ezarri batzuten gerochago, hari « auzo-nausi » edo « auzo-apez » erraiten zioten.

Herri hoik ahal bezain ontza gerizatzeko, erreka handi batez inguratzen ohi zituzten eta erreka hortarat ura jin-arazten. Etsaia ez zizaioten ja aise jazartzen ahal. Bertz'or-duz lan ederragorik ere egiten zuten : ur-male zabal baten erdian pazote azkar batzu landa, eta heien gainean etcheak moltchoan finka : zurubiz sartzen ziren eta sartuz geroztik gauaz zurubiak khen. Miarritzeko bazterretan halako herriak baziren : hor gaindi eza-gutzen ditugun aintzirak ez bide ziren hain gaizki jarriak hortako.

Feniziarak

Hunat urbildu dira mendez-mende hainitz etsai, edo — etsai ez izina gatik — hainitz arrotz.

no biziki gibelagoak, nahiz ez ziren hok ere hain aitzinatuak ordu hetan.

Duela hogoi-ta-sei mendetako dugu Keltotarren hunatjitea. Bachenabarren eta Nafar iphar-aldean sarturik han bere gisako herriak eraiki zituzten, Nafarroan barna lurzerrenda bat beretu, eta gainerateko Eskual-herriak hunakitu gabe, bertze Espainiako eskualdetan kokatu : Gallegoak, Portugesak, Asturtarrak jendaia horren ondokoak dira, hala nola Frantzian Alzaze, Auvergne eta Bretaniako arraza zaharrak.

Erran gabea, hemen gaindikoak ere guti edo aski nahi zirela jendeki horrekin, iphar-aldean segurik, eta hala-hala odolarekin batean mintzairia hein batetaraino kutsatu zitzaizotela.

Iberotarrak

Kasko laburrak ziren Keltotarrak. Bertze gizon buru chabalagokoak jin ziren gerochago osteka. Jesu-Kristo sortu aitzineko bortzgarren mendean zitakeien. Ere mu handiak bazauzkaten harturik Europa guzian Iberotarrek. Azkenean hunarat bildu ziren eta Espainiarat jautsi.

Beren mintzaira berezia bazuten eta bichtan da, gure auzo izaki - eta, hemengoekin puchka bat ahaidatu zirela, bai arrazaz, bai hizkuntzaz. Keltotarrek ere nahastekatu ziren eta Beronak nola Kantabreak bi odol hoietako umeak ziren.

Horrenbeste jendakien artean nun ziren bada tokikoak, ala arrotzek arrunt iretsiak ? Ez, arraza chaharra bethi hazkar zagoen, nahiz haren eremua biziki ttipitua zen eta egun aiphatu ditugun arrotzez nabarkatua.

Bertze aldian ikhusiko dugu nun zer ari ziren Eskualdunen arbasoak.

P.L.

Orai duela hiru mila urthe, bazen Lur Saindutik ipharreatago « Fenizia » delako herrialde chume bat : jendeak frango erneak, izkirionea errechtu zutenaz geroz, izarren gora-beherak ikhertu, beren mintzairia hain bat hedatu ; bainan gain-gainetik diru-goseak ziren, langile maierak eta merkatari lehenak.

Beren salerospenak ez zituzten herrikoz-herriko egiten : urrunerat bazoazin itsasoz eta han hemenka gelditokiak ezartzen zituzten, bai untzien, bai salgaiantzat. Hala sortu ziren gelditoki hoietan itsas-hiri gaitzak. Mediterraneko ugarte andana bat Feniziartu ziren, Afrikako iphar-aldea ere parte segurik, Kartago hiri-nausi zaukatelarik aurkhintza hortan. Italia eta orai Frantzia deitzen dugun herri hegoaldean berdin portu batzu eman zituzten. Gehiago dena, Grekotarren liburu zaharrei fida bagitazke, Feniziarrek Gibraltarreko ur-lephoa iragan zuten eta Atlantika-itsasoari gora gure hegietarat jo.

Badakigu « Laphurdin » sartu zirela Baionan gaindi ; eta itchura guzien arabera bertze Eskual-herriko bazterretarat ere hedatu ziren. Hasteko, eskuararen erho zaharrenak feniziarren mintzairetik athera direla uste dugu, nahiz ordutik bide luzea egin duen gure hitzkuntza ederrak, eta bertze asko mintzaietako gaiez aberastu den. Feniziarrek zioten naski tokiko jenderi irakutsi nola balialzen ahal zituzten beren burdin-miak.

Arrotz hoiekilako gudurik ez daukute liburu zaharrek aiphatzen.

Keltotarrak

Keltotarrak aldiz ez zitzaizkoten adiskide gisa ethorri. Gizon basa aire batzu ziren, Alemaniako oihan beltzenetarik ilkiak, hemengo jendeak bai-

Eskualdunak Menderen Mende

ESKUALDUNAK ETA ERROMANOAK

Kartago eta Erroma

Kartago eta Erroma elgarren etsai chaharrak ziren aspalditik; eta bere aherkundera behi minduz eta azkartuz zoan. Espainian, Erromako gobernuak soldadoak igorri zituen eskualde batzuetarak, eta lurpuska zonbait ez zituztenetz tokiko jendeari ebatsiko; hala-hala Kartagotik ere baziren soldadoak milaka ethorriak, lan berari lotu beharrez. Baitan ohoinek ezin elgar adi, ardua ere bekaizti, denek alabainan lur hoberenak nahi, ez zen bizitzetik. Goiz edo berantauzia odolaren gostuz trenkantu beharke zuten. Bi erresuma handien arteko bigarren gerla phiztu zen, Jesus sortu aitzi-neko 219-an.

Sagonta hartu zuten Kartagotarrek, Erromanoen debeku guzien gabik; eta nola ordubik guduaz ezin gihela baitzikakeien, Afrikanoen buruzagiak chedebat harrigarria hartu zuten. Anbal zuen izena aitziandari horrek. Ingunretan bihatu eta bildu zuen abal bezanbat lagunkide, bere gudulari saldoaren azkartzeko, eta heiekin batean orai Frantzia deitzen dugun lur-aldean sartu zen; hor gairdi *Alpes* mendietaratu zuen eta, elhurtza zelarik, gainez gain Italiarat iragan. Pentsa ba ez zirenetz Italiakoak harritu! Ilsas-gaineko gerlaren haiduru egoki, eta gero etsaia bertze aldeitik heldu. Anibalek Erromanoak erhautsi zituen hiru gudu handitan, Trebian, Trasimenen eta Kanetan. Ondoko urthetan haatik, gizon eta jan-daen eskaez, gerla ezin irabazi zuen, Italia utzi behartu zitzaion eta Afrikan berean garhaitu zuten Erromanoek.

Zer nahi den, bekokia gaitza izan zuen, Italiari hain ederki lothurik; eta herritarrek pochi bat lagundu balute, aise gaina hartuko zuen. Anibalekin Españolak baziren, bai eta *Eskualdunak* ere. Silius Italiacus idazlariak erraten du beren ikurrina edo bandera bereziarekin zirela eta ezin polikiago goresen ditu heien zalhutasuna eta gurbitasuna; guduaz burubutsik eta bulhar-gerizarik gabe sartzen omen ziren deblauti.

Baknean

Eskual-herrian berean zer gerthatu zen? Handik eta hainar bat urtheren buruan Erromanoek Publius Scipion igorri zuten Espainiara. Aitzindari hau hoberenatarik zen. Kartagotarrek ohildu zituen eta nola! Bainan ezpata ona bazuen ere, bihotza etzuen baltete gaichoa; jendea larderiatu orde, balakatu zuen eta alde guzietarrik jin zitzaizkon oro agur eta oro amen.

Eskualdunek bakhea egin zuten bertzek bezala (309); bainan,

bertzek ez bezala, beren hitza atchiki. Espainiako herrialde guziak ez zituzten Erromanoek berdin arhatzen eta han-hemenka behi aurkintza bat edo bertze jazarririk ere, ez da harritzeko. Dena dela, Eskualdunak ez ziren gerla berezi hoitan sartu eta mende oso-osoa guduak gabe iragan zuten. Orduan ziren latina eta Erromanoen ohidurak ere hain barna hedatu gure arbasoen artean.

Sertorius

Bainan Jesus sortu aitzi-neko 80-ean Eskualdunek Españolekin hizartu, behar zituztena Erromano arrotz itsusi horiek herririk hustu. Huna nola gerthatu zen.

Ordu hetan Erroma nahas-mendu erdi-erdian izaki-eta; hainitz aitziandari baziren hango nauai jarri-nahiak. Bakofchak bere soldadoak bazauzkan eta heteri bermartuz behar zuen izaitzekoz gobernuaz jabetu. Sertorius chaharra heitarik zen; bainan gudulari guti-cho izanez, Erroman berean bertze aitziandarien garhaitzeko, gogoratu zitzaion Españiarrat joatea; han soldadoak bilduko zituen eta bere herrian heiekin itzuliko.

Soldado biltzea ez da errech. Bainan Sertorius-ek erran zitoten Españoleri: «Adichkideak; bil zaitzele denak ene ondorat; lagun nezarue Erromaz nau-sitzen eta gero libro izanen zirezte.» Orduan Eskualdunek ere baietz ihardetsi zioten eta hamar urthez jarraiki zitzaizkon.

Mendietako gerla

Sertorius hori beldur gabear zen eta guduko jukutria guzien berr bazaken. Tokiko soldadoak ere frango zahluak zituen eta debruz eginikako erneak.

Soldado erromanoak behi lerro-lerroan gudukatzen ziren; eta hainitz baitziren mehatarririk, indarka aise lebertzen ohi zituzten beren etsaiek. Bai; bainan Sertoriusen gizonek ez zuten hola jokatu nahi; bazakiten ez zirela aski lan hortako. Bertzela ari ziren: argal-argala jartzen giren, eta etsaia saheska edo gibeletik hartzen; zatraldino bat eman eta bere-hala lasterka ihes egin. Etsaia ondofik joan nahi, bainan norat? Errabiatua zagon, nahasia, mendietan errebelatua, behi gudu handi baten haiduru eta behi pelzero, zer nahi gizon, diru, tresna eta zaldi gaitzen.

Bertze aldian kondaluko dugu nola egin zen gerla harri-garri hori.

P. L.

Gure erlisione: ez da bertzeak iduria; gizon jakitate gabeko batzuek hedatu zuten mundu guzian eta orai gizon Zoriona nahi baduzu luze eta nasai, zure arima behar duzu arthatu. Gorphutzak eman atseginak labur eta biharamun kirets.

14 - Sept 1934

- 2 -

CHRONIQUE BASQUE

Etes-vous nationaliste ?

Telle est la question que je pose l'autre jour à un jeune labourdun, qui me répondit :

« Je ne vous répondrai pas, parce que ce mot est traître. L'un est appelé ainsi, parce que de sa nation il fait une idole, exemple Maurras ; un autre, parce qu'il est un patriote vigilant, exemple Marin ; un autre, parce qu'il revendique pour sa région le droit de se constituer en nation ; un autre, tout simplement, parce qu'il reconnaît la nationalité du peuple auquel il appartient... »

— Vous êtes subtil !

— Pas du tout. Les Basques, de quelque côté des Pyrénées qu'ils se trouvent, sont certainement unis par les liens du sang, de la langue, et d'une civilisation particulière ; sans aucun doute, comme je reconnut naguère un professeur de droit international en cours public, le vouloir-vivre collectif existe au sein des sept provinces, et par conséquent on peut parler strictement de **nationalité** basque...

— Ah ! Et quel est le professeur en question ?

— Le R. P. Yves de la Brière, de l'Institut catholique de Paris.

— C'est intéressant ! Et alors vous allez créer une nation basque ?

— Ne plaisantons pas. Toute **nationalité** ne crée pas le devoir ni même le droit réel pour un peuple de se constituer en **nation** indépendante : il faut qu'un vouloir-vivre collectif s'ajoute, le pouvoir-vivre ; la morale catholique affirme de plus que, même cette condition remplie, la séparation n'est pas légitime, si la nation abandonnée se trouve privée ainsi d'un pouvoir-vivre suffisant.

— Quelles conclusions en tirez-vous ?

— Eh ! bien, les eskualerriistes (dont je suis) estiment qu'au siècle ou nous sommes le Labourd, la Basse-Navarre et la Soule sont étroitement liés à la France au point de vue économique et leur pouvoir-vivre serait lamentable en dehors du cadre français. Nous avons étudié le problème, documents en mains, et l'évidence a confirmé notre impression première... Que les Basques péninsulaires et les Catalans, par contre, aient des moyens de vivre en dehors de l'unité espagnole, c'est possible ; reste à savoir si la sécession ne constituerait pas un grave danger pour le pouvoir-vivre honnête de l'Espagne amputée. De fait, la vieille nation court plutôt vers le fédéralisme que vers l'écartèlement. L'essentiel, c'est que les diverses régions de la péninsule s'entendent pour respecter, conformément à la justice, leurs droits mutuels : car il n'y a pas de paix sans ordre, ni l'ordre sans justice.

Et vous autres ?

— Nous trouvons naturel de collaborer avec les quatre provinces sur le terrain linguistique, artistique, littéraire ou sportif. Mais notre position politique est indépendante de la leur pour les raisons dont je vous parlais il y a un instant, et nous pensons pouvoir conserver nos droits particuliers, et au besoin les recouvrer, par une politique régionaliste française. Ceux qui nous accusent de séparatisme ne savent donc pas ce qu'ils disent, à moins qu'ils ne cherchent à nous nuire. Il suffirait pourtant de lire notre brochure **Eskual-herriaren alde** dans sa traduction, pour savoir à quoi s'en tenir...

— C'est entendu, je vais me la procurer !

ZAZPI.

AITZIN-SOLASA

Duela zombait urthe
 Pierre jaun apheza hasi
 Gure herria delako ager-
 aspaldiko Eskualdunen
 emalten. Sorgaitzez —
 badezaket — aphezpikatu
 kuden eta behar izan z
 gure arbaso gaiztoak bere
 utzi. Alia bada frantgok alse
 zuketari jakitea noiz zer g
 thatu zitakeien gure me
 zaharren artean.

Aphezpiku bikainaren jak-
 tatea ez izana gatik, ez eta ha-
 ren mintzai gurbil bezain er-
 nea, iduritu zaiku behar gini-
 tuela heraberik gabe gure argi
 chumeak bildu eta ihunbe
 arterat agertu. Ganaz elektrika-
 rik ez denean, chirio puchka
 bat ere ez dea gocho ?

Nahi ginuke bada erran, aha-
 lik garbikiena, nundik heldu
 diren Eskualdunak eta nolako
 gora-beherak jasatik dauden
 menderen-mende gure aiten ai-
 tak.

Jendaki guzien ithurburuak
 guti edo aski gordeak dira, ha-
 la nola ur-handi gehienan ithur-
 buruak, mendi gorenetako el-
 hur churiak egundainotikan
 estaltzen dituztelarik. Nehor
 ez da beraz harrituko, gure ar-
 razaren hastapenak aipatzea-
 rekin, han-hemenka lanho-her-
 resta batzu dilingan uzten ba-
 ditugu.

Jakintsunen errantearik ari-
 ko gira. Baina ez baitira denak,
 hurbiltzekorik ere, aburu be-
 reko, ikhusiko dugu ea ez di-
 tazken nolazpait batetarat bil,
 hoinbertze gizon zuhurren era-
 kaspén bereziak.

Jesu-Kristo sortu aitzineko
 hirugarren mendelik landa,
 gava arinduko zaiku, hedoia
 argalduko, goiz azkorria izanen
 da, egun ederrago baten men-
 tura gochoarekin.

Orduan salhatuko ditugu Es-
 kualdunek berrehun urtehez
Erronanen kontra erabili gu-
 du izigarriak, batean garhart-
 zale, bertzean garhailu, baina
 behi zail, behi iraunkor, be-
 thi khechu, beren zuzenak on-
 hart-arazi ez zituzteno eta hart-
 zekoak eskuratu.

Gero berriz ihunbe arteka
 bat : haatik, Jesus jin ondoko
 laugarren mendetik harat, mi-
 retsiko dugu zoin ederki gogor
 egin dioten Eskualdunek *Bar-
 baro* mola guzietan, bertze jen-
 daki gehienak, indar eskasez
 bezanbat behoki eskasez, amor
 emateari zaudetarik.

PELLO. — To, eta guk ere,
 zerbeit ikasiko lerro hank ira-
 kurtuz... Ez adiorik, to ! Go-
 rainitzi etcheat...